

GRADUKO MATRIKULA

Bigarren ikasturteak eta hurrengoak

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

MATRIKULA.....	1
ARDURALDIA ETA IRAUPENA.....	2
ORDUAK ETA TALDEAK.....	3
IRAKASGAIK EUSKARAZ ETA INGELESEZ.....	4
ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.....	4
BEKAK.....	5
ALDAKETA ETA EZABAKETA.....	6
KREDITUAK AITORTZEA.....	7

GRADUKO MATRIKULA

Bigarren ikasturteak eta hurrengoak

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

MATRIKULA

Noiz egin behar dut matrikula? Nola egiten da?

Matrikula on-line egingo da www.unavarra.es orrialdean, ezarritako epean. Unibertsitatearen egoitzan bertan ere egin dezakezu, Arrosadiako campusean, bertako langileen laguntzarekin (ikus irekiera- eta itxiera-ordutegia). Lehenago posta elektronikoko bat jasoko duzu zure hitzorduarekin.

Matrikula aldatzeko murrizketak eta ordu-taldea, eskolak emateko hizkuntza eta matrikulatu beharreko kreditu kopurua aukeratzean akatsen bat egiteko aukerak kontuan hartuta, honako hauek arretaz irakurtzea aholkatzen dizugu matrikula egin baino lehen:

1. [Matrikulazio gida](#) Interneten bidez eta
2. Ikasketa-planei, orduei, irakasgaiak egiteko hizkuntzei buruzko informazioa eta [web-eko matrikula-atalean](#) ematen diren jarraibideak.

Behin matrikula egin ondoren, hamar egun dituzu dokumentazioa aurkezteko eta ordainketa egiteko Interneten bidez edo bankuan.

Unibertsitatearekin zor bat baduzu, ezin izango duzu matrikula egin egoera konpondu arte.

Matrikula hitzorduan egitea beharrezkoa da?

Hitzorduari esker aipatutako egun-orduetatik matrikulazio-epea amaitu arte egin dezakezu matrikula. Ez da nahitaezkoa baina bai gomendagarria ikasleari bidalitako hitzorduan ezarritako epean egitea matrikula, bereziki hainbat talde daudenean aukeran.

Zenbat denbora daukat matrikula egiteko?

30 minutu baino gehiago ez erabiltzea da gomendagarriena. Dena den blokeatzen bazaizu deitu Unibertsitate Arretarako Bulegora, berehala desblokeatuko dizute (948 169096 edo 948169000).

¿Zer dokumentazio aurkeztu behar dut?

Egiaztagiria, **familia ugariarena**, **desgaitasunarena**, terrorismoaren edo genero indarkeriaren biktima izatearena, arrazoi horietako batengatik tasen salbuespenerako eskubidea baldin baduzu.

ARDURALDIA ETA IRAUPENA

Arduraldia urtero matrikulatzen dituzun kredituetako kopuruari buruz aritzen da.

Oro har, hurrengo ikasturteko irakasgaiak agertuko zaizkizu automatrikula-programan, aurretiaz matrikulatu eta gaingitu gabeko irakasgaietaz gainera. Gradu gehienetako ikasketa-planean 10 irakasgai daude urteko, 5 irakasgai sei hileko bakoitzeko. Ikusi matrikula-webean, Arduraldia eta Iraupena atalean matrikula egiteko bete behar dituzun arauak.

Ikasketa-planeko oinarritzko eta nahitaezko irakasgaien matrikula hurrenez hurren egin beharko da, ikasmaila baxueneko irakasgaietatik hasita. Irakasgaiak lehenengo aldiz matrikulatu baino lehen, aurreko ikasmailetan gaingitu gabeko irakasgaiak matrikulatu behar ditu, [salbuespenak](#) salbu.

Ikasturteko irakasgai guztietan egin behar dut matrikula?

Ikasturte bakoitzean matrikulatzea zilegi den kreditu kopurua 30etik 84ra bitartekoa da. Kontsultatu matrikula webean, "Zure titulazioko arduraldia" atalean.

Zenbat irakasgai gaingitu behar ditut karreratik kanporatu ez nazaten?

Ikasturte amaieran eskatutako errendimendua jarraian aipatzen den formularen arabera kalkulatu da. Formulak egindako matrikula kopurua eta abian den ikasturtean matrikulatutako kreditu kopurua hartzen ditu kontuan.

$$\text{Rendimiento} = \frac{(n - 1) \times \text{ECTS} + 6}{2}$$

n= titulazioan egindako matrikula kopurua osotara.

ECTS= aurtengo ikasturtean matrikulatutako kreditu kopurua

Zer gertatuko da, gutxieneko kopuru hori gaingitzen ez badut?

Ez duzu gradu horretan jarraitzerik izango. Iraupen Batzordean eskaera aurkezteko aukera izango duzu, zure eskaerari buruzko egiaztagiriekin batera. Errekurtsoa atzera botatzen badute, zure ikasketa plana utzi beharko duzu. Halakoetan, beste ikasketa batzuk ikasteko aukera izango duzu, ikasle berriei dagokien aurreinskripzioa eginez onartzen bazaituzte, edo bi urte igaro ondoren, gradu berera itzuli eta horri jarraipena eman. Bi aukerak bateraezinak dira; bata edo bestea hautatu behar duzu.

Zilegi da aurten matrikula ez egitea? Ikaspostua gordeko didate?

Bai, ikasturte batean edo batean baino gehiagotan matrikulatzen ez bazara ere, ikasketei berriz ere ekiteko eskaera egin daiteke horretarako ezartzen den epean, eskabidea erregistroan sartuz.

ORDUAK ETA TALDEAK

Taldea aukera dezaket?

NUPeKo irakasgai askotan hainbat talde daude, irakasgaia emateko orduen eta hizkuntzaren arabera. Matrikulan taldea aukeratuko duzu, aukera baldin badago. Beraz, ezinbestez matrikula egin baino lehen jakin behar duzu zein diren matrikulatu behar dituzun irakasgaietako taldeak. Euskaraz eskaintzen diren irakasgaiak 9tik hasten dira eta ingelesez eskaintzen direnak 8tik. [Ikusi aukera daitezkeen taldeak](#)

Zergatik ez dago 30 taldea ordutegietan?

Behin-behineko talde bat delako, 80 eta 90 taldeak bezala. Zure behin betiko taldea zein den ikusi behar duzu Zerbitzuen Atariko ikasketa-espeditante atalean

Noiz eta non begiratu ahalko dut zer taldetan nagoen?

Begiratu matrikulako webaren [Orduak eta Gidak](#) atala. Han taldeen esleipenerako estekak aurkituko dituzu.

Taldez alda dezaket?

Matrikulatutako irakasgaien artean ordu bateraezintasuna dagoenean soilik aldatuko da taldea (ordutegia), edo lan ordutegiarekin, goi mailako edo errendimendu handiko kirolaria bazara, edo aldaketa taldea trukatzegatik.

IRAKASGAIK EUSKARAZ ETA INGELESEZ

Nola matrikulatzen naiz euskarazko irakasgaietan edo ingelesezko ikasgaietan?

Automatrikulan irakasgaien gaztelania da irakasgaietako hizkuntza lehenetsia, Nazioarteko Taldearentzat izan ezik. Hortaz, irakasgai bat euskaraz edo ingelesez matrikulatu nahi baduzu, behin hautatu duzunean, irakasgaiaren ezker aldean dagoen ikur berdean klikatu behar duzu eta hizkuntza aukeratu.

Euskarazko irakasgaiak 9 zenbakiarekin hasten direnak dira, eta ingelesezkoak 8 zenbakiarekin hasten direnak.

Ingelesezko irakasgai batean matrikulatu banaiz eta ez badut gaintitu, Orain gaztelaniaz har al dezaket?

Bai, zilegi da irakasgaiaren hizkuntza orain aldatzea, betiere beste hizkuntza bat eskaintzen bada, jakina. Nazioarteko taldeetako ikasleak, ordea, behartuak daude beren ikasketaplanean ingelesez eskaintzen diren irakasgaietan matrikula egitera.

Bestalde, kontsultatu Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskolaren webean, bere nazioarteko taldeen eskakizunak.

Matrikulatutako irakasgai baten hizkuntza aldatzerik badut?

Bai, administrazio eraikinean eskatu behar duzu ezarritako epean, eta hizkuntza aldatuko dizute, betiere ikaspostu hutsak baldin badaude.

ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

Nork finkatzen ditu ikasketen prezioak?

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak NAOn argitaratzen ditu urtero irakaskuntza zerbitzuen prezioak. Kredituaren prezio bat ezartzen da, eta prezio hori pixkanaka igotzen da egindako matrikula kopuruaren arabera. Seihileko batean ez bada irakasgai bat gaintitzen, eta hurrengo seihilekoan irakasgai berberaren matrikula egiten bada, bigarren matrikula dela jo eta prezioa bikoiztu egingo da, graduen [prezioen](#) web-orri honetan azaltzen den bezala.

Badut deskonturik irakasgai batean ohorezko matrikula edukitzeagatik?

Unibertsitateko irakasgai batean ohorezko matrikula bat lortzeak hurrengo ikasturtean ondoriokoak ditu, kreditu kopuru bereko irakasgai baten matrikula ordaindu beharrik ez baitaukazu. Beharpen hau automatikoki aplikatuko da matrikula egiten duzunean.

Unibertsitatearekin zor ekonomiko bat baldin badaukat, debekatuta daukat matrikula egitea?

Ez, lehenengo ordaindu behar duzu, eta matrikula egingo duzu administrazioak jakiten duenean ordainduta dagoela, hau da, ordainketaren biharamunean, matrikula egiteko epearen barruan baldin bada.

Nola ordaindu behar dut matrikularen zenbatekoa? Hona ekarri behar dut abonu-agiria?

Matrikula ez da zorduntzen ikasleak adierazten duen kontu zenbakian. Ordainketa-agiri batekin ordaindu behar da; zuk ordainketa-agiria inprimatu eta agiri horretan bertan ageri den banku entitate batera eraman beharko duzu.

Kontu zenbakia eskatzen da, unibertsitateak dirua itzuli behar duen kasuetarako.

BEKAK

Noiz eta nola eskatzen dira bekak, zein daukat eskatzerik?

Beka bat eskatu baino lehen, egiatzatu betetzen dituzula irakaskuntza-betekizunak.

Nafarroan erroldatua bazaude, eta aurreko urtean P.F.E.Z.aren zergaduna izan bazara erkidego honetan, Hezkuntza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren beka eskatzeko aukera izango duzu. Nafarroakoa eskatzeko, Ministerioarena ere eskatu behar duzu.

Euskal Autonomia Erkidegokoa bazara, Eusko Jaurlaritzaren beka. Beste erkidego batekoa bazara, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren beka eta zure erkidegoaren beka, baldin badago.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren beka bat eskatzeko, online inprimakia bete behar duzu. Ez duzu inolako dokumentaziorik aurkeztu behar unibertsitatean, unibertsitatez aldatzen zarenean, atzerrian errentak lortu dituzunean edo ekonomia eta familia independentzia aitortu behar duzunean salbu.

Nafarroako Gobernuaren bekak eta Eusko Jaurlaritzaren eta online bete behar dira, baina dokumentua inprimatua aurkeztu behar da dokumentazio osagarriarekin batera, NUPEko Beka Bulegoan.

Bekadun gisa egin behar dut matrikula Ministerioaren beka eskatu behar badut?

Aukera dezakezu:

1. Matrikula bekadun gisa egitea erabakitzen baduzu orain, administrazio-prezioak baino ez dituzu ordaindu behar, eta abendutik aurrera, ministerioa beka ebazten hasten denean, beka ematen badizu, matrikularen zenbatekoa unibertsitateari emango zaio, eta ukatzen badizu ordainketa bakarrean ordaindu behar duzu, inoiz ez epetan.
2. Matrikula bekadun gisa ez egitea erabakitzen baduzu, gero ministerioak beka ematen badizu, matrikula-bekaren zenbatekoa zure kontu zenbakian sartuko da.

Ikasketak aldatzen baditut bekarik gabe geratuko naiz?

Bai, Hezkuntza Ministerioak ez dizu bekarik emango hurrengo ikasturtean. Bekadun gisa osorik edo partzialki egiten ari zaren unibertsitateko ikasketak aldatzen badituzu, ez dizute bekarik emango ikasketa berrietan matrikulatutako ikasturte kopurua utzitako ikasketetan beka izan zenuen urte-kopurua baino handiagoa den arte.

ALDAKETA ETA EZABAKETA

Noiz eta nola alda dezaket nire matrikula?

Matrikula-epean alda daiteke, baina lehenengo eta behin egindako matrikula baliogabetzeko eskatu behar da (automatrikula gelan edo mezu bat bidaliz grado@unavarra.es helbide elektronikora) eta matrikula berriro egin behar da matrikula-aldian, ordaindu ez baduzu. Matrikulazio-epea amaitu eta gero, matrikula aldatzea eskatzeko epe bat dago [ezarritako kasuetan](#).

Eta okertu egin baldin banaiz, bekaduna ez naizela edo hainbat epetan ordaindu nahi dudala edota irakasgaia emateko hizkuntzan nahi ez nuena jarri dudalako?

Kasu horietan zilegi da aldatzeko eskatzea horretarako ezarritako epeetan.

Eta nola baliogabetu dezaket matrikula?

Ikusi [web-ean](#)

KREDITUAK AITORTZEA

Nola eskatu behar dut lanbide-heziketako irakasgaien kredituak aitortzeko?

Lehenago eta behin ikusi web-ean [zein irakasgai aitortuko dizkizuten](#). Gero hurrengo ikasturteko irakasgaietan matrikula egin behar duzu, baliokidetu dizkizuten irakasgaiak diren ala ez kontuan hartu gabe. Eta gero kredituak aitortzeko eskatu behar duzu: [prozedura](#).

Gero eskutitz bat jasoko duzu, zein irakasgai aitortzen zaizkizun aipatzen duen ebazpena daukana. Gero, Gradu bulegoak zurekin harremanetan jarriko dira, matrikula zabaldu nahi baduzu beste irakasgai batzuekin.

Prozesua atzeratzen bada eta eskolak hasi badira baina oraindik ez baduzu ebazpena jaso, egin nahi dituzun beste irakasgaietako eskoletara joaten hastea komeni da, eta irakasleei jakinaraztea ezin izan duzula irakasgai horietan matrikula egin kredituak aitortzeko daukazulako.

Nola eskatzen da beste titulazioan gainditutako kredituen aitortzea?

Aurreko erantzunean bezala. [Prozedura](#)